IGORREKO UDALA
IFK: P-4810700G
Elexalde 1- 48140 Igorre (Bizkaia) udala@igorre.net
www.igorre.net
Tfnoak. 946315384
Faxa. 946315455

## IRAGARKIA

Igorreko Udalaren Osoko Bilkurak 2013ko maiatzaren 27an egindako batzarrean, honako erabaki hau hartu zuen:

1- **Hasieran ontzat emango da UDEA KALEKO ERTZEAN AIRE ZABALEKO APARKALEKU BAT EGITEKO IGORREKO ARAU SUBSIDIARIOEN HAMASEIGARREN ALDAKETA PUNTUALA.**

2- **Espedientea jende-aurrean azalduko da BI HILABETEKO epean,** bai planaren dokumentua, bai ingurumena iraunarazteko txostena (211/2012 12 D. artikulua) eta horri buruzko iragarkiak argitaratuko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Lurralde Historikoan gehien saltzen den egunkarietako baten; era berean, iragarkia ipiniko da Udaleko web orrian.

3- Halaber, urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legeko 7-K. artikuluan ezarritakoa betetzeko, dokumentua Uraren Euskal Agentziari (URA) bidaliko zaio, udal plangintzaren eta herri jabari hidraulikoaren babesaren eta erabileraren arteko erlazioari buruzko manuzko txostena eman dezan. Positibotzat hartuko da, loteslea den txostena HILABETE BIKO epean eman eta jakinarazi ezean.

4- Hasieran ontzat ematea jakinaraziko zaie sektoreetan eskumenak dituzten herri-administrazioei, jakin dezaten eta txostena eman dezaten.

5- **Gehienez urte biko epean, eten**

## ANUNCIO

El Pleno del Ayuntamiento de Igorre, en sesión celebrada el pasado día 27 de mayo de 2013, ha adoptado el siguiente acuerdo:

**1- Aprobar inicialmente la. 16ª MODIFICACIÓN PUNTUAL DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE IGORRE PARA EJECUTAR UN APARCAMIENTO AL AIRE LIBRE EN EL BORDE DE LA CALLE UDEA**

**2- Someter el expediente a Información Pública por espacio de DOS MESES,** tanto del documento del plan como del informe de sostenibilidad ambiental (art. 12 D 211/2012) mediante la inserción de los correspondientes anuncios en el BOB, así como en un diario o diarios de mayor difusión o circulación del Territorio Histórico, igualmente se insertará anuncio en la página web del Ayuntamiento

**3-** Asimismo, de conformidad con lo establecido en el art. 7- K, de la Ley 1/2006, de 23 de Junio, de Aguas se remitirá el documento a URA, Agencia Vasca del Agua, para que procedan a emitir informe sobre la relación entre el planeamiento municipal y la protección y utilización del dominio público hidráulico. Este informe, que tiene carácter vinculante, se entenderá positivo si no se emite y notifica en el plazo de DOS MESES

**4-** Notificar la aprobación inicial, para su conocimiento e informe, a las administraciones públicas con competencias sectoriales, administraciones Públicas que aparecerán identificadas en el Documento de Referencia.

**5-** Proceder a la **suspensión por**

IGORREKO UDALA
iFK: P-4810700G
Elexalde 1- 48140 Igorre (Bizkaia) udala@igorre.net
www.igorre.net
Tfnoak. 946315384
Faxa. 946315455

**egingo da baimen eta onarpen guztiak emateko aukera,** aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintzako araubidea aldatuko duten eremuetan. Hala ere, indarrean dagoen araubidean oinarritutako lizentziak eman ahal izango dira, beti ere, plangintza berriaren zehaztapenak errespetatuz gero, (Plangintzaren Araudiko 120. art.).

6- Espedientea bideratuko da, jende aurrean azalduko den Erreferentziazko Dokumentu Osagarriarekin batera.

**el plazo máximo de dos años del otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias** en los ámbitos en las que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente. No obstante, podrán concederse licencias basadas en el régimen vigente, siempre que se respeten las determinaciones del nuevo planeamiento (art. 120 del Reglamento de Planeamiento).

6- Diligenciar el expediente, junto con el Documento de Referencia Complementario que se somete a exposición pública.

Igorren 2013ko maiatzaren 31an.

ALKATEA

Beinat Anzola Uriarte.

IGORREKO UDALA
iFK: P-4810700G
Elexalde 1- 48140 Igorre (Bizkaia) udala@igorre.net
www.igorre.net
Tfnoak. 946315384
Faxa. 946315455